

**2014ko APIRILAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **8 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko apirilaren 30ean, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Juan Luis Illarramendi Roteta jn.

Bertaratutako zinegotziak Eider Illarramendi Azkue and.
Jabier Etxaburu Elu jn.
Karmele Alberdi Linazasoro and.
Iñaki Eizagirre Eizagirre jn.
Alizia Osa Otxandorena and.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ane Eizmendi Alberdi and.
Gari Berasaluze Ostolaza jn.
Imanol Lasa Zeberio jn.
Maite Garrastazu Aranguren and.
Maribel Albizu Barrenetxea and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Ixidor Larrañaga Aierbe jn.
Jesus Arana Gomez jn.
Patxi Elola Azpeitia jn.
Irma Domingorena Zampirain and.
Mariana Aranburu Garate and.
Aser Lertxundi Manterola jn.
M^a Jose Lafuente Grasa and.

Bilkura hasita Gloria Vazquez Herranz and.

Idazkaria Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio udalbatzarrak.
Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) 2014ko martxoaren 26koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2014ko apirilaren 8koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko martxoaren 24tik apirilaren 25era

Alkatetzak 2014ko martxoaren 24tik apirilaren 25era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko martxoaren 21etik apirilaren 11ra

Era berean, Tokiko Gobernu 2014ko martxoaren 21etik apirilaren 11ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN 2013ko AURREKONTUEN LIKIDAZIOAK ONARTZEN DITUZTEN EBAZPENEN BERRI EMATEA, ETA KONTU-HARTZAILTZAREN TXOSTENAK

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako dekretu eta ebazpenen berri eman dute:

a) Udala

Alkatetzaren 0443. dekretua, 2014ko martxoaren 31koa:

“Udal honetako 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		1.034.997,82
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		8.517.335,94
Aurrekontuko zordunak :	5.169.788,87	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	3.448.586,53	

Aplikatu gabeko kobrantzak:	- 101.039,46	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		3.715.497,44
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.713.954,14	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak:	2.983,16	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	998.560,14	
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		5.836.836,32
5.- Saldo kobragaitzak:		1.674.217,65
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		4.162.618,67
7.- Diruzaintzako gerakina finantzaketa lotua duten gastuetarako:		26.646,92
8.- Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako (6-7):		4.135.971,74
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		935.584,86
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-186.491,07
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		721.044,78
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		248.378,88
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		1.718.517,45
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		1.189.658,18
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		1.278.135,77
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		2.467.793,95

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

b) “Zarauzko Turismo Bulegoa” erakunde autonomoa

Presidentearen 022/2014 ebazpena, 2014ko martxoaren 6koa:

“Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autónomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- “Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autónomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		25.263,66
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		141.745,77
Aurrekontuko zordunak :	141.466,90	
Aurrekontuz kanpoko zordunak :	278,87	
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak,2013-12-31n:		90.663,14
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	75.888,89	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak :	14.776,25	
-Aplikatu gabeko ordainketak :	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1 + 2 + 3):		76.346,29
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5) :		76.346,29
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7) :		76.346,29
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza :		18.685,97
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza :		-2.579,02
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik :		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik :		0,00

13.- Aurrekontua emaitza (9+10+11+12)	16.106,95
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
15.- Txerta ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

c) **“Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoa**

Presidentearen 018. ebazpena, 2014ko martxoaren 24koa:

“Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- “Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		56.201,20
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		457.020,42
Aurrekontuko zordunak :	455.584,45	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.435,97	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		210.388,48
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	176.022,83	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak:	26,90	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	34.338,75	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		302.833,14
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		302.833,14
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		302.833,14
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-18.960,10
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		10.299,49
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		152.232,99
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		143.572,38
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		108.839,85
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		175.365,21
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		284.205,06

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari eta Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuretan.

Era berean, aipatutako likidazio horien egonkortasunari buruz kontu-hartzaileak egin dituen txostenen berri eman zaio Udalbatzarrari.

Une honetan, **Gloria Vazquez** andrea bertaratu da bilkurara.

4.- FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA: 2014ko 1. HIRUHILEKOA

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2014ko lehenengo hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA (TAO). BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udalbatzarrak, 2014ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA aldatzeari.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon zen epean, alegazio hau egon zen:

- PSE-EE udal talde politikoak aurkeztua: autokarabanak aparkatzeko guneari dagokiona.

Udalergi Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak, 2014ko apirilaren 15ean egindako bileran, proposatu zuen alegazioa ez onartzea eta Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea, hasieran onartutako testuari ondoko aldaketak eginda:

4. artikulua. Funtzionatzeko denboraldiak eta ordutegiak

(.../...)

Aparkaldi mugatuak ordutegi hauek izango ditu:

- 1 zonan:

Udaldian, astelehenetik igandera, 09:00etatik 20:00etara.

1 zonan, aparkaldia, gehienez, 4 ordukoa izango da, errotazio handiko gunetan eta Salberdineko aparkalekuan izan ezik; azken kokapen horretan ez dago aparkatzeko denbora-mugarik. **Ibilgailu industrialei ez zaie lau orduko mugarik aplikatuko.** Igande eta jaiegunetan, errotazio handiko

guneak errotazio arrunteko guneak bezala arautuko dira, ondorio guztietarako.

(.../...)

- 4 zonan:

Autokarabanentzat izango da eta urte osoan funtzionatuko du. **Horretarako egokitutako azalera desberdina izango da uda garaian edo urteko gainerako egunetan, ordenantzari erantsitako dokumentazio grafikoan jasotzen den bezala.** Ibilgailu horiek jarraian gehienez ere 2 egunetan aparkatu ahalko dira. Denbora hori igaro ondoren ibilgailua mugitu egin beharko da. Ez da aparkatzeko baimen berririk emango, aurreko baimena bukatu eta 7 egun pasatu arte.

Planoa.

- Zona 1, 2. sektorea: neguan, egoiliarrentzako zonan bakarrik aplikatzea.

Hori guztia ikusita, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- PSE-EE udal talde politikoak aurkeztutako alegazioa ezestea, Udalerri Eredua eta Lurralde Antolaketa informazio-batzordeak emandako irizpenaren arabera. Irizpena, arrazoitze-ondorietarako, akordio honi erantsita geratuko da.

Bigarrena.- Behin betiko onartzea ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN aldaketa, informazio-batzordeak proposatutako aldaketak eginda.

Hirugarrena.- Ordenantzaren aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin.

6.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA EGITEKO KONTRATUA LUZATZEA ETA PREZIOA BERRIKUSTEA

2010eko otsailaren 24an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen EULEN SA enpresari esleitzea, behin-behinekoz, ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA egiteko kontratua, 396.983,69 euroko prezioan (BEZ barne). Kontratua 2010eko martxoaren 29an sinatu zuten.

2011ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen EULEN SA enpresarekin sinatutako kontratua aldatzea: drainatze-txorokoak egin behar ez izateko eta zerbitzuko teknikaria aldatzeko. Ondorioz, kontratua 396.132,28 euroko prezioan (BEZ barne) geratu zen.

2011ko urriaren 26ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki kontratuaren prezioa eguneratzea; hala, 2011. urtean 406.233,65 eurokoa (BEZ barne) izan zen.

Halaber, 2012ko ekainaren 20ean egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak erabaki zuen kontratuaren prezioa eguneratzea eta, 2012. urterako, 414.520,82 euroko prezioa (BEZ barne) ezartzea.

Azkenik, 2013ko maiatzaren 29an egindako Udaltzarrak erabaki zuen kontratua 2014ko martxoaren 29ra arte luzatzea eta, baita ere, kontratuaren prezioa eguneratzea: 2013ko apirilaren 7tik 2014ko apirilaren 6ra 435.537,20 euroko prezioa (BEZ barne) ezarrita.

Ikusita bai Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako departamentuak egindako txostena (324/2014, martxoaren 17koa), bai Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena, Udaltzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA egiteko kontratua urtebete luzatzea, 2015eko martxoaren 29era arte.

Bigarrena.- Kontratuaren prezioak berrikustea. Urteko prezioa guztira 436.647,82 eurokoa izango da (BEZ barne), 2014ko apirilaren 7tik aurrerako eraginarekin. Hona hemen laburpenaren taula:

2014-2015 urtea (2014/04/07tik 2015/04/06ra)

ZERBITZUA	ZERBITZUA USTIATZEA 2013-2014	2014-2015 PREZIO EGUNERATZEA (% 0,255)	ZERBITZUA USTIATZEA 2014-2015	BEZ (% 21)	GUZTIRA
Lorezaintza	359.948,10 €	917,87 €	360.865,97€	75.781,85	436.647,82 €

7.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

– **Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: “Fracking Ez” mugimenduaren idatzia aurkeztuz**

Ondoren, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

“FRACKING EZ mugimenduak Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurari aurkezten dion mozioa haustura hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruz

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) hidrokarburoak bilatzeko saiakera asko egon dira. Gure lurraldeak hidrokarburoetan aberatsak ziren beste lurralde batzuekin zituen antzekotasunengatik, petrolio enpresentzat zonalde interesgarria zirudien. Hainbat saiakera egon diren arren, ez dira inoiz izan uste bezain arrakastatsuak.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzetako haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketara garatua izan da.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du, horren froga nabariena SHESA, %100an diru publikoko enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, 2014ko apirilean EAE-n emandako 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustrai, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-n zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

Teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, hala nola edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, airearen kutsadura, lurren okupazio eta putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak besteak beste. Gaur egun, fracking-ak dakartzen ondorio kaltegarriak hainbat txosten eta ikerketa zientifikoetan erraz egiaztatu daitezke

Hau dela eta fracking-a egiten ari diren edo egiteko asmotan dauden lekuetan biztanlearen aurkako jarrera gero eta nabarmenagoa da. Instituzioetan ere hasia da islatzen aurkakotasun hori, eta hainbat lekuetan fracking-a mugatzen edo debekatzen dituzten, adierazpenak, galdeketak, legeak eta abar onartuak izan dira. Adibide gisa, Vermont estatuak, AEB-etan edo estatu frantziarrak, europar, fracking-a debekatu dute beraien lurraldeetan. Guregandik gertu, Nafarroan, Errioxan eta Kantabriar fracking-a debekatzen duten lege autonomikoak onartu dira. Eta estatu espainiarrean 400 udalerritik gora izan dira bere burua "fracking gabeko udalerria" bezala izendatu direnak.

Teknika hau sortzen ari den arazoan aurrean, eta berauek agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerrri honen mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea.

Honen guztiagatik, Udalbatza honi aurkeztzen diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.-Zarauzko Udalbatzak fracking-aren bitartez aztertu, ikertu edo ustiatu daitezken hidrokarburo ez konbentzionaletarako Ikerketa Baimen guztiak bertan behera geratzea eskatzen dio Hidrokarburo de Euskadi enpresa publikoari.

2.- Zarauzko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako iritzia dela eta, jarrera aktiboa har dezan Zarautz "Fracking gabeko Udalerriri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerriararen sarreran jarritz.

3.- Frackingaren debekua eskatzen duen Herri Ekimen Legegilearen helburuarekin bat egiten duenez, Zarauzko Udaltzarak udaletxeko harrera bulegoetan sinadurak jasotzeko orriak izango ditu eta herritar guztiak sinatzera gonbidatuko ditu.”

Aurkeztutako proposamenaren puntuak banan-banan bozkatuta, honako hau izan da emaitza:

- 1. puntua: 15 boto alde, 6 kontra.
- 2. puntua: 1 boto alde, 19 kontra, abstentzio bat.
- 3. puntua: 11 boto alde, 9 kontra, abstentzio bat.

Ondorioz, bozketa bakoitzean jasotako emaitzaz, Udaltzarrak ERABAKI DU

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko zortziak eta hogeita bostean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.